

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Prozedura ireki bidezko lizitazioa, garraio jasangarriaren zerbitzua kontratatzeko adinekoentzako 2016ko kanpainako jardueretarako

1. Erakunde esleitzailerak:

a) Erakundea: Erriberagoitiko Udala

2. Kontratuaren xedea:

a) Zerbitzua

b) Azalpena: udalak antolatutako lekualdaketetarako garraioa adinekoentzako 2016ko kanpainako jardueretarako, garraio jasangarriaren programaren barruan

c) Lekua: Araba 14 - 01420 - Pobes

d) Kontratuaren iraupena: urtebete, 2016ko ekitaldia. Nolanahi ere, zerbitzua hasten denetik kontratu berria esleitu arte gauzatuko da, gehienez ere 2017ko ekainaren 30era arte.

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: arrunta

b) Prozedura: irekia

4. Kontratuaren zenbatekoa:

Kontratuaren balio zenbatetsia 22.792,00 euro izango da (BEZa, zergak eta gastuak sartu gabe)

5. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

a) Herria eta posta kodea:

Erriberagoitiko Udala

Araba 2 - 01420 - Pobes

Telefonoa: 945 362021

Faxa: 945 362007

Web orria: erriberagoitia.com

b) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna:

eskaintzak aurkezteko epea amaitu arte.

6. Esleipen irizpideak:

a. Formula matematikoen bidez ebaluatu ezin direnak: memoria teknikoa eta lan egitasmoa ("B" gutun azala); 30 puntu, gehienez ere.

b. Formula matematikoen bidez ebaluatu daitezkeenak: 70 puntu emango dira gehienez ere; 70 puntu jasoko ditu eskaintzarik onena aurkezten duenak, eta gainerakoei portzentualki, proposatutako beherapenaren arabera:

70 puntu oinarrian egindako beherapen ehunekoari (eskaintzarik onena)

X puntu oinarrian egindako beherapen ehunekoari (gainerako eskaintzei, banan-banan).

7. Eskaintzak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko epea: 10 egun baliodun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaintzak aurkezteko azken eguna larunbata edo jaieguna izanez gero, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboen agirian agertzen direnak.

c) Aurkezteko lekua:

Erriberagoitiko Udala

Araba 2 - 01420 - Pobes

8. Eskaintzak irekitzea

Tokia:

Erriberagoitiko udaletxeko osoko bilkuren aretoa

Araba 2 - 01420 - Pobes

Eguna:

A gutun azala, aurrez deialdi publikoa eginda

B gutun azala, aurrez deialdi publikoa eginda

C gutun azala, ekitaldi publikoan, aurrez eguna eta ordua iragarrita

9. Iragarkien gastuak

Esleipendunaren kontura.

Pobes, 2016ko urriaren 18a

Alkatea

JESUS BERGANZA GONZALEZ